XABIER LETE

Hona hemen Xabier Leteren testu batzuk.
“Jainkoaz galdezka” liburuan eginiko ekarpena (Alberdania, 2007) eta “Egunsentiaren esku izoztuak” (Pamiela, 2009) liburuko hiru poema.



“Jainkoa”: zer idarokitzen dizu hitz honek?

Babesa, kontsolamendua. Jainkoa beti zertxobait haratago dago, alboko gelan, Rilkek zantzutu zuen bezala, baina ez dago guregandik urrun.]ainkoa, den ororen alfa eta omega litzateke, Pizkunde Pazkoan kandela pizterakoan esaten dugunez; existitzen
den ororen hasiera eta amaia. Hasierako indar boteretsua, den orori, kosmosari, lehen arnasa eragilea eman ziona; eta gauza guztien amaia, bilbatze maitekorrean bere altzoan jasoko gaituelako unibertsoen ibilaldia sorrerako puntura itzultzen denean. Eta hor gaude gu bitartean, planeta txiki batean bidaiari, kosmosaren hautsean izaki galduak; baina Jainkoaren izate maitekorrak duintzen gaitu, sostengatzen gaitu, humanizatzen gaitu.
“Jainkoa" hitzak beste gauza intimo bat ere idarokitzen dit: jainkoaren bidera joan izan gareneko otoitz-lekuak. Jainkoa gurtu izan baitugu, aitortu, eta otoitzean lotu haren izate kontsolagarriari. Otoitz-lekuak: elkarren ondoan gizatasuna Jainkoaren oinetan jartzeko tokiak. Igandeetako herriko eliza, non batzen garen besteekin sakramentua ospatzeko; gainera, Arantzazu, Leire, Astigarraga, Montserrat, santutegiak, monasterioak; Jainkoa leku guztietan dago, baina balirudike hurbilago geundekeela Harengandik isiltasunean murgildutako otoitz-leku baketsuetan.

Zein Jainkorengan sinesten duzu, sinesten ba duzu?
Zer izen emango zeni(zki)oke?
Nola irudikatuko zenuke?

Nazareteko Jesusen Jainkoarengan sinesten dut, eta "maitasuna" ematen diot izen. Izaki jakitun bat bezala irudikatzen dut, badakiena zeinen ttikiak eta ahulak garen. Berak, Jainkoak, sortzea eman zigunetik bazekien zeinen akastun izango ginen, eta zenbat aldiz urratuko genituen arauak eta, okerrago, geure kontzientziak. Gizakumea - pentsalari baikorrek eta esteta egozentrikoek nahi dutena esan arren – izaki mugatua, zauritua eta minberatua da; bere naturaren alderdi nobleenetatik alienatua bizi da. Eta Jainkoak, hain zuzen, gizatasun egiazko baten esperantzan bermatzen gaitu; erortzean altxatzen laguntzen digu; oinazean eta bakardadean bere maitasunaren kontsolamendua eskaintzen digu.

Jainkoaren aurrean gaudenok ez gaude inoiz erabat kondenatuak. Beti dago bigarren edo hirugarren aukera bat. Jainko errukitsu horrengan sinesten dugu.

Non eta, nola ageri da, ageri bada?

Oinazearen aurpegian ageri da; desolazioaren nora ezean; gaixoen eta pobreen alboan. Eta horretaz gainera, edertasunean ageri zaigu; egin genitzakeen obra onetan, izadiaren arnasa eta antzaldatze miresgarrietan, izarren distiran. Nik uste dut hitzak ere Jainkoagandik datozkigula, Izpiritu Arnasadunak igortzen dizkigunean; beraz, harrokeria eta hantustekeria handia da uste izatea hitzak, obra ederrak, intelektoaren emaitza hutsa direla.
Baina, batez ere, nik uste dut Jainkoa sufrimenduan dagoela; sufritzen duten guztiekin, zaurituekin, munduaren emaitza onak ezik hondarri makurrenak jaso dituztenekin. Jesus, Kristo, gurutzeratu zutenean, gizatasunaren aldetik hondakin hutsa zen: laidotua, iraindua, umiliatua, zauritua, puskatua, torturatua. Hala ere, izaki desitxuratu eta puskatu hartan mundu honetako duintasun guztiaz egoen. Gero piztu egin zen eta glorifikatua izan zen; baina gurutzeko bere hitzak izugarriak izan ziren: “Aita,
zergatik bizkarra eman didazu?".
Eta nik uste dut desanparoaren une hartan izan zela Jesus Aitaren semeago, guk denok paira genezakeen guztia (bakardadea, oinazea, sufrimendua) beregan hartu zituelako. Glorifikatua izan zen, baina mundu honetako okerrenak igaro ondoren.
Eta hor dago Jainkoa, sufrimendu horretan, biluztasun ikaragarri horretan, zentzugabearen gaurik beltzenean. Eta guk ere Jesusena besterik ezin genezake ohikatu: “Aita, zure eskuetara daramat nire izpiritua.”

Zer eta nola egiten du mundu honetan, ezer egiten badu?

Nik uste dut Jainkoak mundu honetan gure bitartez egiten duela, eta haren nahiaren arabera jokatzea, mundu honetako aberastasun eta baliabideak antolautz, gizakiaren errespontsabilitatea dela. Horretarako dugu adimena, horretarako ditugu zentzu morala eta ongiaren eta gaizkiaren bereizteko ahalmena.
Eta, gainera, kristau deitzen garenok Kristoren irakaspena dugu, aldarrikapen argi eta zorrotzez betea.
Testamentu Zaharretik datorkigu gizakumeok elkarren errespontsable garelako ideia, eta Jainkoaren kreazioaren gauzatze-lanetan partaide. Emmanuel Lévinas pentsalari frantziarrak ere judaismotik jasotako pentsamendu hori gogoetatu zuen: ni zure korrespontsable naizela, onean eta txarrean. Eta zu nirea.
Beraz, Jainko agure obren zain dago guk mundua eta existentzia bere nahiaren arabera kudeatu ditzagun. Hala ere, sinestun batentzat eskandalu eta oinaze handia da Jainko on eta ahalguztidun hori askotan munduko gaizkiaren aurrean isilik legokeela pentsatzea. Askotan entzuten dugu: “Jainkoak zergatik onartzen du hori?”. Ez da fede herrikoiaren adierazpen xinple bat, kontzientziaren eta bihotzaren sakonenetik sortzen den protesta-oihua baizik.

Uste dut Jainkoaren desanparoaren kontzientzia hori Historian zehar modu zaurgarrienetan bizitu dutenak juduak direla. Herri hautatua ziren, eta munduak errukirik gabe mila bider hankaperatu, umiliatu, atormentatu eta ezabatu ditu.
Auschwitzen Jainkoarengan sinestea oraindik posible al zen? Zer esan ziezaieketen errabinoek euren jendeei?



Fede batek ez luke hain ataka larrira eramana izan behar; froga gogorregia da.
Hala ere, hasierako ideiara nator: Jainkoak mundu honetan gure bitartez egiten du. Gu gara errespontsableak. Kontzientzia hori gabeko jainkokeria guztiak sustraitik ustelduak iruditzen zaizkit.

XABIER LETEREN POEMA BATZUK

“Egunsentiaren esku izoztuak” (Pamiela, 2009).

Gure aita, zeruetan eta erbestean zarena
zer esanen diegu buruan tirokatuei
zer esanen diegu labeetan erretakoei
zer esanen diegu ziegetan lurperatuei
zer esanen diegu torturatuei, ezabatuei,
zer esanen diegu haien ondorengoei
zer esanen diegu historiaren hondakinei,
zu izanik den ororen lehena eta zentzua
zure baitan balego giza-destinoaren giltza
esaiguzu, zer esan behar diegu haiei
iraindutakoei, odoldutakoei, apurtutakoei,
emaigu kaddish baten hitzak
requiem batenak hala behar ezkero
esaiguzun non leudekeen errukia, salbabidea
otoitzak, arrenak, doluaren sendagarriak,
adi gauzkazu, adi beti ahuspezkatuak
zure gurutze salbagarriaren aterbe aurrean
gure aita, sufrimenduaren egoitzetan zarena. (117. orria)

Eta zer, Jainkoa
oroitzekin eraikia
gure biluztasunaren baizik ez bazina,
esku dardaratiek lotzen zaizkionean ikonoari
eta argi batek piztarazten duenean gauez
madonnaren irudi sotila.
Hor naukazu zure errukiari atxikia
azken desolaziotik babestua eta salbatua
izan nadila eskatuz.
Zuk badakizu bilatzen zintugula ilunabarrean
mendi urdinsken artean
monje leun kantatzaileek
beraien izpiritua zure eskuetara zeramatenean.
Biok izan baikinen dardaratsu bat
eliz-sabaietaruntz aideratzen zen
kantu ozen hartan, otoitzean oihu
zure urruneko erresumaruntz
izarretatik haratago,
bakez zeudenean oihan hesia eta ibarra
eta gure arima graziaz blaituek
gauaren isiltasuna murmuriotsua zutenean zelatatzen (147. orria)

Jaso nazazu, maite, azken egunean
har nazazu zure besoetan
muga izugarriaren ataria gurutzatzen dudanean,
bil ditzadala zuregandik ferekak eta irriak,
belaze goitiarretako argitasunean

berreskura dezagula maitasun lehena
brisarak gure bekokiak zimurrez garbitzean,
nik dakit itxaroten didazula
ez dakit nola, ez dakit non
baina helorduko berraurkitze hori
jainko baten mentura harrigarriak ez dezala saihestu,
zure hitzean bermatzen naiz
joan zineneko serenitate hartan,
jaso nazazu,maite, kitapen handiaren egunean,
ez dut itxaroten tronpeten doinurik
ez nagokie aingeruen abestaldeei,
zor hura barkatua izan ahal baledi
eta kulpa hura xukatua…
orduan nintzateke ni betirako zure
betirako on, orbanik gabea, duin,
orduan ginateke betirako elkarren,
jaso nazazu, maitea, azken egunean,
zatoz nire bidera eta adeitsu, irriz,
dei nazazu nire izenez
ni zure erruki handian salbatua izan nadin,
salbatuak elkarrekin eta maitasunean glorifikatuak betirako. (203-4 orriak)